



AIARALDEKO EUSKARAREN EGUNA 2024:

EUSKARAREKIN KORAPILATU

Gustua hartu, dastatu, murtxikatu, laztandu, eta berarekin korapilatu. Gure territorio librean barneratu, ezagutu, lotu... Elkarrekin nahastu, arnastu, indartu eta gozatu, aurten ere Aiaraldean euskararen eguna elkarrekin ospatuko baitugu.

2016an abiatu ginen eta eskualdea josten darraigu. Bidean aurrera, **Arrankudiaga-Zollora** batuko gara oraingoan. Udalerri bat eta bi herri, beraz berritasuna ere bakar aurtengoak: hitzordu bikoitza. **Azaroak 29an Zollon** abiatuko da festa eta **abenduaren 1**ean egun osoko egitaraua izango dugu **Arrankudiagan**.

Bi herriotan euskara borbor dabil. Udalerria euskara bultzatzeko hainbat ekimenetan dabil buru belarri egunotan Aiaraldeko eta Euskal Herriko Euskalgintza Kontseiluarekin zein UEMArekin elkarlanean. Prozesu parte hartzaile bat abian du xede horrekin Udalak. *Gurasoleku* ekimena lehen aldiz burutu da Arrankudiagan eta izen emate andanaren ondorioz pausu berriak eman dira: euskara ikasteko guraso talde bat sortu da ikastetxean, berbalagun talde bat martxan jarri eta familiek aisialdian euskaraz gozatzeko taldea ere abiatuko dute.

Arrankudiaga-Zolloko herritar eta eragileekin batera hilabetetan zehar ondutako egitarau bete dakargu, Euskararen Eguna eskualdeko osoko herritarrekin ospatzeko. Publiko anitz asebeteko duen eskaintzan musika, kirola,

mendia, jan-edana, adin guztietarako jolasak, umorea... ez dira ez faltako.

Horretarako konplizeak ez dira gutxi: *Mantxinkorta mendi taldea, Kamaraka pilota elkarte, Arrankudiagako Eskola eta IGEa, Musika Eskola, Eskubaloi taldea, Kirino...*

Elkarte guzti hauen inplikazioa eskertu eta balioan jarri nahi dugu, baita egunean bertan lanean izango diren bolondres guztiena ere. Bestetik, Arrankudiaga-Zolloko Udalaren eta herritarren inplikazioa, eskainitako laguntza, erraztasunak eta elkarlana eskertu behar dugu. Ahantzi gabe, eskualdeko gainerako 8 udalerriek ere beren ekarpena egin dutela. Poztekoa berriz ere.

Berotzen joateko, hirugarren urtez jarraian, martxan dugu **Memealdia**, euskarazko memeen lehiaketa. Umorea, sormena eta euskara eskutik. Parte hartzeko gure webgunean dituzue argibideak eta istagrameko memealdiaren kontuan ikusgai. Ekimenaren sari banaketa Arrankudiagan izango da abenduaren 1ean, jasotako *meme* guztien proiektioarekin batera. Iaz 200 *memetik* gora jaso genituen, aurten baietz gainditu!

Bestetik, Arrankudiaga eskolako ikasleek eskualdeko gainerakoei erronka bota diete: ***Euskararekin korapilatu zaitez!*** Aho korapiloak sortu eta Arrankudiaga-Zollo hobeto ezagutzeko proposamena prestatu dute horretarako eta ikastetxe guztietara helarazi. Abenduaren 1ean ikusiko dugu ekimen eder honen lehen emaitza.

Jaiaren egitarauaren inguruko zehetasun eta jakin garri guztiak gure webgunean aletuko ditugu egunotan. Arrankudiagara trenez hurbiltzeko gomendioa egin nahi dugu baita, erosotasuna, segurtasuna eta bideragarritasuna buruan.

Komunitatea batu eta euskara bultzatu: xede horrekin hasi zen

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua 2016an eskualdean Euskararen Eguna

elkarrekin ospatzeko jaia antolatzen. Amurrion "aterkipean" hasitako bidaiak Urduña, Laudio, Orozko, Luiaondo, Arakaldo, Artziniega eta aurten Arrankudiaga-Zollo izan ditu geltoki orain arte. Jarrai dezagun bidean gozatuz, aldarrikatuz, saretuz, indartuz...

**Azaroaren 29an eta abenduaren 1ean erdu Zollo eta Arrankudiagara!
Euskaraktibatu eta gurekin korapilatu!**

Gehiago jakiteko, jarraitu gaitzazu::

<http://aiaraldekoeuskaingintza.eus/>

<https://aiaraldea.eus/komunitatea/AiaraldekoEuskaingintzaKontseilua>

Sare sozialetan:

youtube

facebook

twitter **@eusk_kontseilua**

instagram **@aiaraldeko_euskal**